

Munduketariak

Proposamen didaktikoa



PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA

SARRERA

Munduketariak ipuina, 2024ko 31. Euskal Eskola Publikoaren jaiaren testuinguruan sortu da, Publikotasuna, euskalduntzea, aniztasuna eta inklusioa ardatz. EHIGE, Euskal Herriko Ikasle Gurasoen Elkartek eta Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateak bultzaturiko lana da.

Hezkuntza asmoa: Zer lortu nahi dugu?

Ikas egoera honetan, ipuineko gertaerak eta ikasgeletako errealitatea dira abiapuntu. Publikotasuna, euskalduntzea, aniztasuna eta inklusioa landu, hausnartu eta balioan jarriko dugu.

Honela, proposatzen diren zereginak ildoari erreferentzia egiten dieten 4 atazatan sailkatu dira eta bakoitzean 3-4 zeregin egitea proposatzen da.

Aldi berean, zereginak modu soltean egiteko ere diseinatu dira, bakoitzak nahi duen bezala antolatu edo egokienak ikusten dituenak burutzeko.

Ataza eta zeregin guztiak modu inklusibo batean antolatu dira, ikasle guztiak egin ahal izateko.

Helburuak

- Aniztasuna, hezkidetzaren eta inklusioaren balio positibo moduan indartzea.
- Euskara denok batzen gaituen hizkuntza gisa ikusaraztea.
- Euskal Herrian elkar bizi diren hizkuntzak balioan jartzea.
- Euskal Eskola Publikoko Komunitatea sendotzea.

FUNTSEZKO KONPETENTZIA

- Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (HKK)
- Eleaniztasunerako konpetentzia (EK)
- Matematikarako konpetentzia eta Zientzia, Teknologia eta Ingenieritzarako konpetentzia (STEM)
- Konpetentzia digitala (KD)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)



- Herritartasunerako Konpetentzia (HK)
- Ekintzailtzarako Konpetentzia (EK)
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia(KAKK)

IKASGAIAK

Ikas egoera honetan disziplinar tekotasuna landuko da. Zehazki arlo hauek landuko dira:

- EUSKERA ETA LITERATURA
- GIZARTE ZIENTZIAK
- ARTE HEZKUNTZA

NORI ZUZENDUA

Liburua bezala, bizi egoera hau 4.5. eta 6. mailako ikasleei begira burutu da. Hala ere, 2. eta 3. Zikloko ikasleentzat diseinaturik egon arren, beste adin taldekoek ere egin ahalko dituzte bertan proposatzen diren zereginak. Horretarako, irakasleak maila bakoitzaren arabera zereginak aukeratu eta antolatu beharko ditu.

HEZITZAILEEN ESKU HARTZEA

Prozesu guztian zehar bidelagun izango dira.

DENBORALIZAZIOA

Proposamen didaktiko honetan agertzen diren jarduerak 14 saiotarako planteatu dira. Saio kopurua gutxi gorabeherako orientazioa da, ikasleen ikaskuntza-eritmoaren eta proiektuan zehar sor daitezkeen interes eta jardueren arabera izango baita.

Horretaz gain, ikastetxe edo irakasle bakoitzak zeregin solteak egiteko aukera izango du edo bere irakaskuntza prozesuan nahi bezala txertatzeko.

ESPAZIOA

Ikasgelak izango dira erreferentzia espazio baina gelatik atera eta pasiluetan, atsedentokian edo herriko gune ezberdinetan lantzeko aukera egongo da.



EBALUAZIOA

EBALUAZIOAREN IZAERA

Ebaluazioa hezigarria izango da: etengabekoa, kooperatiboa, pertsonalizatua, konpetentziala eta jarraia. Hau da, prozesu osoan zehar ebaluatuko da.

Atzeraelikadura ebaluazioaren oinarria izango da eta ikasleari bere prozesuan egiten dituen aurrerapenez eta hobetu beharreko alderdiez jabetzeko aukera emango dio. Honen bidez, ikasle kopetenteak heziko ditugu.

TRESNAK

Ebaluaziorako tresna hauek erabiliko dira: Elkarrizketa, behaketa eta datuen analisia.

Azkenik, atazaren amaieran honakoa galdetuko dugu:

ZER IKASI DUGU? Hausnarketa partekatua egingo dugu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak erabiliko ditugu zereginak ebaluatzeko eta ikasleen konpetentzia maila neurtzeko.

Ondorengo taulan, proposamen didaktiko honen alderdi kurrikularra garatu da. Bertan ikusiko duzuen bezala, ebaluazio irizpideek konpetentzia espezifikoei egiten die erreferentzia.



FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA			
<p>Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, DK2, DK3, DK5,PSIIK4, HK1, HK2, HK3, HK4, EKK1, EKK2, EKK3, KKA1.</p>	<p>6. Gizakiak ingurunean esku hartzearen arrazoiak eta ondorioak kritikoki aztertzea, arlo sozialak, ekonomikoak, kulturalak, teknologikoak eta ekologikoak integratuz, arazoei aurre egiteko gaitasuna garatzeko, konponbideak bilatzeko eta haiek ebaztean banaka eta kolaborazioan jarduteko, praktikan jarri hitura iraunkorrak eta bat etorriko direnak pertsonetikiko eta planetarekiko errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin.</p>	<p>6.1. Pertsonen bizitzaren eta ingurune elementu eta baliabideen gainera haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuz.</p> <p>6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura iraunkor egokiak praktikan jartzea.</p> <p>6.3. Ingurune arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuz.</p>	<p>B. Teknologia eta digitalizazioa</p> <p>1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea. Ongizate digitala sustatzeko estrategiak. Teknologia digitalen erabilera desegokiarekin eta ez-seguruarekin lotutako arriskuak antzematea eta jarduteko estrategiak.</p> <p>4. Kontzientzia ekosoziala. Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek ingurune paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera</p> <p>Giza ekintzaren ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak.</p> <p>Bizi-ohitura iraunkorrak. Kontsumo arduratsua, uraren</p>



			eta energiaren erabilera, mugikortasun iraunkorra eta hondakinen kudeaketa
Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK 1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, DK1, DK2, DK3, PSIIK3, HK1, HK2, HK3, KKAK1, KKAK2.	8. Aniztasuna eta genero- berdintasuna onartzea eta baloratzea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsiz, gai etikoei buruz modu kritikoan gogoeta eginez, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibidual eta kolektiboan laguntzeko eta europar bizikidetzaren baketsua eta errespetuzkoa lortzeko.	8.1. Migrazioek gaur egun duten garrantzi demografikoa, kulturala eta ekonomikoa aztertzea, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate kolektiboari egiten dioten ekarpena baloratuz, eta kultura-aniztasun guztiarekiko enpatia eta errespetua erakutsiz. 8.3. Ikerketa txikiak egitea ingurunean kultura-aniztasunarekin errealitateari buruz, dagoen ondare-aberastasunaz eta -aberastasunaz jabetuz, eta pertsona eta kultura desberdinekiko errespetuzko eta elkarriketarako jarrera sustatuz.	C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak. Ingurune naturala. Euskal Autonomia Erkidegoaren, Euskal Herriaren, Espainiaren eta Europaren aniztasun geografikoa. Irudikapen grafikoa, bisuala eta kartografikoa bitarteko eta baliabide analogiko eta digitalen bidez. Migrazioak eta kultura-aniztasuna. Migrazio-mugimenduak eta kultura-aniztasunaren aintzatespena. 3. Alfabetatze zibikoa Inguruko ohitura, tradizio eta adierazpen tekniko-kulturalekiko begirada kritikoa. Ingurunean bizitza den kultura-aniztasunarekiko eta gizarte-kohesioarekiko errespetua.



EUSKARA, GAZTELANIA ETA LITERATURA

<p>Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	<p>1.EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerekin portaera asertiboak sustatzeko.</p>	<p>1.1. Inguruneko hizkuntzak eta dialektoak (zeinu-hizkuntzak barne) ezagutzea eta haiekiko interesa eta errespetua erakustea, hizkuntzen eta kulturen arteko oinarrizko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta alderatuz.</p> <p>1.3 Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, eskola- eta gizarte-ingurune eta ingurune digitaleko komunikazioetan euskara erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa azalduz.</p>	<p>A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna</p> <p>Hizkuntza dibertsitatea eta dibertsitate etnokulturala, hizkuntza arteko gogoetarako tresna eta aberastasun gisa.</p> <p>Elebiduna eta eleanitza izatearen aberastasun pertsonalaren balorazioa.</p> <p>Euskararen erabilera proaktiboa eskola- eta gizarte-bizitzan.</p>
<p>Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE2, STEM4, KD1, KPSII3, HK3.</p>	<p>2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-premiei erantzuteko.</p>	<p>2.2 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.</p>	<p>A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna</p> <p>Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziazko abestiak (aho-korapiloak, abesti tradizionalak...)</p> <p>B. Komunikazioa</p> <p>2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza</p>




			Ezagutzaren eraikuntza, balorazioa eta komunikazioa.
Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD2, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.	8. Ikaslearen garapenerako egokiak diren literatura-obrak edo horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura-generoa eta haren oinarriko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa ezagutzen hasteko eta plazer- eta ezagutza-iturri gisa eta literatura-asmoko testuak sortzeko inspirazio- iturri gisa ezagutzen hasteko.	8.1 Haur-literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko askotariko autoreren orotariko testuak entzutea eta irakurtzea, testuak gaien arabera eta literatura-generoaren funtsezko alderdien arabera erlazionatuz eta bestelako adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatuz eta interpretatuz, betiere lagunduta. 8.2 Testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, literatura-asmoz eta lagunduta sortzea, eredu jakin batzuk modu pertsonalean eta zenbait euskarritan birsortuz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.	C. Literatura-hezkuntza Literatura-obra osatzen duten funtsezko elementuak (gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza) eta literatura-generoak osatzen dituzten funtsezko elementuak, obraren zentzuaren eraikuntzan. Testuen eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko erlazioa. Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak. Irakurle-nortasunaren eraikuntza. Gustuen eta interesen adierazpena. Obren balorazio argudiatuak hastapenak.



ARTE HEZKUNTZA

<p>Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.</p>	<p>4. Kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezaren zentzua garatzeko.</p>	<p>4.1 Oinarrizko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan parte hartzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik kolaborazio-lanean jardunez.</p>	<p>B. Plastika eta Ikus Hezkuntza</p> <p>2. Sorkuntza eta interpretazioa</p> <p>Plastika-adierazpe neko bitartekoak, euskarriak eta materialak: esperimentazioa. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko oinarrizko teknikak marrazki eta modelaketa errazetan.</p> <p>Sorkuntza-prozesu aren faseak: plangintza gidatua eta esperimentazioa. Kolaborazio-egikaritza. Prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa eta interesa.</p>
---	--	--	--





Gida didaktikoa



GIDA DIDAKTIKOA

1. Ataza: GELAZKINA

TESTUINGURUA

Gelazkinak munduan zehar bidaiatzen du eta herrialde ezberdinak bisitatzen ditu.

XEDEA

-Gelan elkarbizitzen diren herrialde ezberdinak mapan kokatzea eta herrialdeen arteko ezberdintasunen ezagutza eta bakoitzaren aberasgarritasunaz jabetzea.

-Kultura eta bizimodu ezberdinen ezagutza eta balioan jartzea.

ZEREGINAK

- 1. ZEREGINA: Liburuan aipatzen diren herrialdeak mapan kokatu.**
Horretarako lehenik, Urdaneta eskola (Ordizia) kokatu eta ondoren gelazkinak bisitatzen dituen herrialdeak markatu.

**Aldaera: Zure gelan gelazkina eginez gero, zein herrialdetara joango zinatekete?*

**Ikusi 1. txantiloia*

- 2. ZEREGINA: Zuen geletako jatorria atzerrian duen familia bat edo gehiago gonbidatu eta elkarrizketa bat egin.**

Honelako galderak egin ditzakezue:

-Non jaio zinen? Nolako zen zure eskola? Zein lan zure lanbidea? Zein da zure janaririk gustukoena? Zein da zure abestirik gustukoena? Zergatik etorri zinen Euskal Herrira? Zein da bizimoduan izan duzun aldaketa haundiena?...

**Aldaera: herrialde bakoitzeko toki esanguratsuenak edo pertsonaia famatuak(abeslariak, kirolariak, margolariak...) ezagutu eta deskribapenak egin.*

**Ikusi 2. txantiloia*



3. ZEREGINA: Argazki erakusketa bat antolatuko dugu. Horretarako bilatu etxean zuen familiako argazki zaharrak (gurasoen jatorrizko herrian, bizi zeraten herrikoak, oporretakoak ...) eta eskolara ekarri.

Argazki erakusketa bat antolatu eskolako espazio batean eta beste gelakoetako ikasleak edo familiak gonbidatu erakusketa ikustera.

Argazki bakoitzaren azpian idatzi: herria eta lekua, urtea, pertsonen izenak.

**Aldaera: Argazkiak eskolako hedabideetan, web gunean edo blogean txertatu.*

DENBORALIZAZIOA: Gure proposamena zeregin guztiak 5 saiotan egitea da.

BALIABIDEAK: Mapa, elkarrizketa txantiloia, argazkiak.

2. Ataza: Gure hizkuntzak: DECACACHIMBA

TESTUINGURUA

Mikaela protagonistak “decacachimba” hitza erabiltzen du askotan “oso ondo” edo “primeran” adierazteko.

XEDEA

-Hizkuntza ezberdinak balioestea.

-Hizkuntza ezberdinetan komunikatzeko oinarrizko hiztegia jasotzea.

-Euskara denok batzen gaituen hizkuntza dela jabetzea.

ZEREGINAK

1. ZEREGINA: Harmoni protagonistak “decachimba” hitza erabiltzen du askotan, oso ondo edo primeran adierazteko.

Baina ba al dakizu errumanieraz, arabieraz, ibo, frantsesez, ingelesez edo gaztelaniaz nola esaten den?



Beste hizkuntza batzuetan elkarrizketa bat mantentzen ikasiko dugu.
Ondoren, gelako sarreran edo pasilloan ongi etorri murala osatuko dugu, ikasi ditugun esaldiak idatziz.

KAIXO, ZER MODUZ ZAUDE?
NI ONDO NAGO.
ESKERRIK ASKO, AGUR.

**Ikusi 3. txantiloia*

2. ZEREGINA: Gure eskolan “Zorionak zuri abestia” beste hizkuntzetan ere abesten dugu. Ikasi nahi duzu?

Abestien audioak https://baleafunk.eus/channels/publikoa_ai_do plataforman topatuko dituzue.

**Ikusi 4. txantiloia*

3. ZEREGINA: “Ixil ixilik dago” abestiaren letra irakurri, abestu eta dantzatuko dugu!

**Ikusi 5. txantiloia*

DENBORALIZAZIOA: Gure proposamena zeregin guztiak 3 saiotan egitea da.

BALIABIDEAK: hizkuntzen txartela, zorionak zuri grabaketak, ixil ixilik dago abestia.



3. Ataza: Kutsadura elektronikoa: AFRIKAKO ERRALDOIA

TESTUINGURUA

Harmonik ez du Nigeriara hegaldatu nahi. Zergatik ote da?

XEDEA

- Jokaerak sozialek ingurumenean eta elkarbizitzan duten eraginaz hausnartzea.
- Kontsumo arduratsuari buruzko oinarrizko ezagutzak jasotzea.
- Ingurumena eta elkarbizitza hobetzeko jarrera onak proposatu eta balioestea.

ZEREGINAK

1. **ZEREGINA:** Afrika munduko kontinenterik kutsatuenetako bat da. Ba dakizu zergaitik?

Hemen birziklatu ezin dena Afrikara eramaten da. Horren ondorioz, bertan zaborra pilatzen da eta ibai eta hirien kutsadura areagotzen ari da.

Zer egin dezakegu guk kutsadura saihesteko?

- Ikusi ondorengo bideoa:

The story of electronics" euskaraz bikoiztua eta azpigituluekin:

<https://peertube.eus/w/qtx7gCr8F5U3QEJhNFDE8C>

The story of electronics (jatorrizko bertsioa euskarazko azpigituluekin):

<https://peertube.eus/w/dqtrrF6EpbSXA9TR3PwkcC>

-Hausnartu taldean eta erantzun ondorengo galderari:

- Zein da bideoak proposatzen duen zabor eredua? posible dela uste duzu? Zer egin dezakegu?
- Ezagutzen duzu tokiren bat elektrogailuak konpontzen dituenak?



2. ZEREGINA: Egin zuen etxeetako kontsumoari buruzko inkesta.

Honelako galderak egin ditzakezue:

-Etxean zenbat elektrogailu dituzu?

-Zenbat denbora erabiltzen dituzu, telebista, tableta edo bideojokoak?

-Gailuren bat estropeatzen bada, zer egiten duzu? Zakarrontzira bota edo konpondu?


-Mugikorra erabiltzen duzu? Zenbat? Zertarako? Beharrezkoa ikusten duzu? Harremantzeko erabiltzen duzu? zein dira onurak eta ondorio kaltegarriak?

Konparatu datuak gelakideekin, hausnartu eta atera ondorioak.

**Ikusi 6. txantilo*

3. ZEREGINA: Zer egin dezakegu Ingurumena zaindu eta gutxiago kutsatzeko?

Sortu zaborra gutxitzeko kanpaina bat. Kartelak egin ditzakezue eta herrian zabaldu.



BALIABIDEAK: Bideoa, kontsumo inkesta, kartelak.

DENBORALIZAZIOA: Gure proposamena zeregin guztiak 3 saiotan egitea da.



4. Ataza: MUNDUKETARIAK

TESTUINGURUA

Ipuinaren amaieran honakoa kontatzen da: “ Munduketariok lehenaldia ezagutu nahi dugu, eta etorkizuna marraztu, etorkizuna koloreztatu, etorkizuna konkistatu. Ez gara konformatzen paperezko hegazkinak egitearekin. Ez horixe, ze gu, hau da, gu... munduketariak gara gu!”

XEDEA

- Aniztasuna, inklusioa, hezkidetzaren balio positibo moduan indartzea.
- Gure mundua, ingurumena, kutsadura, elkartasuna.... Hobe batean bizitzeko norberak egin dezakeena proposatu.
- Mundu hobe baten alde egiteko jarrera agertzea.

ZEREGINAK

- 1. ZEREGINA:** Denok munduketariak izan gaitezke, denok egin dezakegu zerbait mundua konpontzeko.

Munduketarien abestia ikasiko dugu:

“Beti lurrean hegaz, hegaz, hegaz, hegaz, hegaz, hegaz.

Beti zeruan oinez, oinez, oinez, oinez, oinez.

Nor gara gu? Zer gara gu?

Munduketariak gu”

Abestia https://baleafunk.eus/channels/publikoa_ai_do plataforman topatuko duzu, Patxi Zubizarretak abestuta!

**Ikusi 7. txantiloia*



2. ZEREGINA: Gelazkineko HEGAZKINAK sortu ditzagun!

Horretarako, berrerabiltzeko paperarekin, paperezko hegazkinak egingo ditugu. Hegazkin barruan, bakoitzak nahi duen hizkuntzan mundu hobe baterako bururatzen zaigun mezua idatziko du.

**Ikusi 8. txantiloia*


3. ZEREGINA: MUNDUKETARIAK bihurtuko gara eta patioan, herriko parkean edo plazan, aurrez egindako HEGAZKINEKIN jolastuko dugu abestia abestuz.

4. ZEREGINA: Gure munduketarion hegazkina (birziklatua eta hizkuntza ezberdinetako mezuekin) **norbaiti oparituko diogu!**

BALIABIDEAK: Paperezko hegazkina egiteko pausuak, abestiaren letra.

DENBORALIZAZIOA: Gure proposamena zeregin guztiak 3 saiotan egitea da.





Munduketariak

Txantiloiak




publikoa aI do!


www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus



1.- Gelazkinaren bidaiak



2.- Familiak ezagutuz



1 Nola izena duzu?

2 Non jaio zinen?

3 Nolakoa zen zure eskola?


4 Zer ikasi zenuen? Zein da zure lanbidea?

5 Zergaitik etorri zinen Euskal Herrira?

6 Zein da zure janaririk gustokoena?

7 Zein izan da bizimoduan izan duzun aldaketarik haundiena?

8?



3.-

**Kaixo, ni
.....naiz.**

**Eta 8 urte
ditut.**

**Eskerrik asko,
agur.**



Nola esango zenuke Errumanieraz?
Eta Arabieraz? Gazteleraz? Inglesez?
Galdetu zure ikaskideei eta ikasi beste
hizkuntzetan zure burua aurkezten.

4.- Zorionak zuri

ZORIONAK ZURI


EUSKERAZ

CUMPLEAÑOS FELIZ

GAZTELERAZ

HAPPY BIRTHDAY TO YOU

INGLESEZ



عيد ميلاد سعيد!

ARABIERAZ



LA MULȚI ANI

ERRUMANIERAZ



Abestien audioak https://baleafunk.eus/channels/publikoa_ai_do
plataforman topatuko dituzue.

5.- Abestia: ixil ixilik dago



Ixil ixilik dago, kaia barrenian

untzi xuri polit bat uraren gainean. (bis)



Goizeko ordu bietan esnatutzen gira
arrantzaliarekin joateko urrutira.




Pasatzen nintzanean zure leihopetik
negarrak irteten dit begi bietatik (bis)



Zergaitik (5 aldiz) negar egin?


Zeruan izarrak dagoz itsaso aldetik. (bis)

(Oskorri)



*Sakatu irudian eta abestia entzun eta ikusi.

6.- Inkesta



1. Etxean zenbat elektrogailu dituzu?
2. Zenbat denbora erabiltzen dituzu, telebista, tableta edo bideo jokoak?
3. Gailuren bat estropeatzen bada, Zakarrontzira bota edo konpontzen duzu?
4. Mugikorra erabiltzen duzu? Zenbat? Zertarako?
5. Beharrezkoa ikusten duzu?
6. Harremantzeko erabiltzen duzu?
7. Zein dira onurak eta ondorio kaltegarriak?

Konparatu datuak gelakodeekin eta galdera honi erantzun:

Zer egin dezakegu Ingurumena zaindu eta gutxiago kutsatzeko?

Sortu kanpaina bat!

ZAINDU INGURUA!
-Tresnen erabilera murriztu.

Berziklatu!

Erosi aurretik begiratu: Material kutsakorra ez izatea.



7.- Abestia: Munduketariak nor gara gu?




Beti lurrean hegaz, hegaz,
hegaz, hegaz, hegaz, hegaz.



Beti zeruan oinez, oinez,
oinetz, oinez, oinez.

Nor gara gu? Zer gara gu?

Munduketariak gu.







Patxi Zubizarretaren abestia entzuteko

[https://baleafunk.eus/channels/publikoa ai do](https://baleafunk.eus/channels/publikoa_ai_do) plataforman



sartu.

8.- Egin ditzagun hegazkinak!




3

4




6

7



5



8

